

2024KO IHOBAREN ERAKUNDE HORNITZAILEEN FOROA

Posted on 14/02/2024 by Naider

Category: [Albisteak](#)

Tags: [Ekintza klimatikoa](#), [Ihobe](#), [Tokiko jasangarritasuna](#)

Joan den astelehenean, otsailaren 12an, [Ihoberen Erakunde Hornitzaileen Forora](#) joateko aukera izan genuen. Foro hori erreferentziazko erakundea da ingurumen-politikak eta -estrategiak hedatzeko, eta duela urte batzuetatik ari gara harekin lankidetzan klima-aldaketarekin, tokiko iraunkortasunarekin, ekonomia zirkularrarekin eta azpiegitura berdearekin lotutako gaietan.

Erronka handia, eta, gainera, plazer handia da Ihobe bezalako bezero estrategiko batekin lan egitea, gure ingurunea hobetzen laguntzeko.



